

1. KOORDINAZIO-BILERA // PRESTAKUNTZA SAIOA

EGUNA/LEKUA:

Irailak 16, asteazkena, 9:00-11:00
Zarauzko Berritzegunean

PARTAIDEAK:

Ikastetxeetako ordezkariak:

Iñaki Erostarbe (Zarauzko Antoniano): ierostarbe@antonianokide.com
Jone Irastorza (Zarauzko Lizardi BHI): jirastorza@lizardibhi.net
Ainhoa Mateos (Zarauzko Oteitza): ainhoa.mateos@oteitzalp.com
Amaia Lekuona (Orioko Ikastola): alekuona@oriokoikastola.eus
Amaia Iribar (Orioko Ikastola): airibar@oriokoikastola.eus
Begoña Gabarain (Zestoako Aizarna LHI): bgabarain@gmail.com
Silvia Martinez (Zarauzko Orokieta): silviamarten@gmail.com
Belen Gonzalez (Zarauzko Salvatore Mitxelena): bgonzalez@zarauzkoikastola.net
Itsaso Aldalur (Zumaiako Herri Eskola): itsasoaldalur@gmail.com
Patxi Pagola (Zarauzko La Salle): patxipagola@lasalle.es
Irentxu Cornago (Orioko Zaragüeta): irentxuco@gmail.com
Maria Luisa Manzisidor (Zumaiako Maria eta Jose): marialui.manzisidor@vedruna.org
Naiara Egaña (Getariako Iturzaeta): naiaraega@irakasle.net
Ugutx (Zumaiako Oikia eta Zestoako Arroa): sarriulli@yahoo.es (Amaia Sarriegirena)
Itziar Garciarena (Zumaiako Oikia): itzizo@gmail.com

Ingurugela:

Eduarne Huesa: e-huesa@euskadi.eus

ARAZI: arazi@arazi.eus

Nerea Ibáñez
Eneko Salaberria

Bertaratu ez direnak:

Patxi Ibar (Zumaiako Institutua): pibar@irakasle.net

GAI ZERRENTA:

Prestakuntza saioa "ekitatea eta eskola agenda 21"

Ongi etorria eman eta bertaraturikoen aurkezpena egin ondoren, hainbat oharren berri eman du Ingurugelako Eduarne:

- Datorren hilabetean atari berria irekitzeko asmoa dago (moodle aldaketa), baina bitartean orain artekoa erabiltzen jarraituko dugu. Hala, *Ekitatearen* inguruko materialak **Baliabideak: GAIK** atalean topatu daitezke (3. atala). Eduki guztiak atari berrira eramaten saiatuko bada ere, *sentsibilizazioa* eta *diagnostikoa* atalak norberak bere ordenagailuan deskargatzea gomendatzen da.
- 2015-2016 ikasturtearen kronograma aurkeztu da (moodlen zintzilikatuta) eta bertan, aurreikusitako koordinazio-bileren datak azpimarratu dira:
 - Urriak 14
 - Azaroak 4
 - Urtarrilak 20
 - Martxoak 2
 - Maiatzak 11
 - Ekainak 8

Era berean, ikastetxeetako zuzendariei "Eskola Jasangarriaren" ziurtagiria jaso ahal izateko saiakeran parte hartzeko gonbidapena bidali zaie. Haren inguruko informazioa Donostiako Ingurugelako egoitzan eskuratu ahal izango da irailaren 18an (Basotxiki, 5. A.C). Ondorengo saioak Eibarko Armeria Eskolan eskainiko dira urriaren 2 eta 9an. Saio horietara joateak "Eskola Jasangarriaren" ziurtagiria eskatzera behartzen ez duela aipatu da.

Bestetik, Jasangarritasunaren Hezkuntzarako Jardunaldiak Bilbon ospatuko direla nabarmendu da, azaroak 26, 27 eta 28 egunetan. Horien garrantzia dela eta, apirilean ez da topaketarik ospatuko.

Azkenik, Eskolako Agenda 21eko justifikazioa bidaltzeko epea ekainaren 20an amaituko dela azpimarratu da.

- Urriaren 14ko koordinazio-bilera ospatu bitartean ikastetxe barruan emango diren urratsak aipatu dira:
 - Batzordeen osaketa.
 - Gurasoentzako materialen prestaketa bileretan gaia aurkezteko (*Ekitatearen* inguruko materialak *Baliabideak: GAIK* atalean Ekitateko sentsibilizazioan gurasoentzako *materialak* azpiatalean jasotzen den azalpena oso egokia dela aipatu du Maria eta Jose ikastetxeko koordinatzaileak).
 - Sentsibilizaziorako ekintzak prestatzen hasi.
 - Iazko memoria eskuratu, harturiko konpromisoak, erabakiak eta egindako proposamenak gogora ekartzeko.
- Ikastetxe publikoek jasangarritasun irizpideak ikastetxeko urteko planean txertatu beharko dituzte. Beraz, aurtengo gaia (Ekitatea) txertatzearekin batera, orain arte hartutako konpromisoak, erabakiak eta abar ere gaineratu beharko dituzte. Hori egin ahal izateko dokumentua aurki zintzilikatuko da moodlen.
- Zisare ekimena zabaldu da eta haren barne hartuko ditu Zisare ikerketa proiektuaz gain, hondakinen inguruko bisitak . Haren antolaketaren azalpena irailaren 30ean 11:00-12:00tan Urola Kostako Udal Elkarteko egoitzan emango da. Ikastetxe guztiak bertaratzeko gonbidatuta daude.
- Hezkuntza sailetik zientzia proiektuentzako dirulaguntzak eskaini ziren pasa den ikasturtean (ikastetxe batzuk Zisare proiekturako aurkeztu eta jaso dute) eta 2015-2016 ikasturtean ere zabalduko da seguruenik.
- Ingurugelaren Prestakuntza Plana moodlen zintzilikatuta dago (edozein prestakuntza ekintza burututakoan irakaslearen historialean jasoko da). Ondorengo saioak aurreikusi dira:

IKASTETXEKO PRESTAKUNTZA:

Eskola Baratzearen erabilpen didaktikoa: Ikastetxean burutzeko gutxienez % 25ak parte hartu behar du edo gutxienez 8 irakaslek.

Nola integratu jasangarritasuna ikastetxean
2015-2016 ikasturteko gaia eta Eskolako Agenda 21

PREST_GARA programaren jarduerak:

Koordinatzaile berrientzako prestakuntza
Talde sustatzaile, irakasleak ... ON-LINE IKASTARROAK

Prestakuntza planaren beste zenbait jarduera:

Meteorologiaren eragina izaki bizidunetan
Jasangarritasunaren Hezkuntzaren Euskadiko IV Jardunaldiak
Eskola Jasangarria, Aztertu, Confint

ESKUALDEKO PRESTAKUNTZA:

2015-2016 ikasturteko gaia eta Eskolako Agenda 21

LURRALDERAKO PRESTAKUNTA:

Eskola-Baratzea. Sakontze maila.

Behin aipamen horiek guztiak eginda, prestakuntza saioari hasiera eman zaio (duela 5-6 urte Ekitatearen gaia Gipuzkoako 3 lurraldetan landu zela aipatu du Edurnek, lehenengo aldia ez dela izango frogatuz). Prestakuntza saioak atal ezberdinak izan ditu:

- Ekitateaz ikastetxeetan jasotako lehenengo iritziak:
 - Zaila (txikiekin).
 - Hori ere EA21ean?
 - Zer da hori?
 - Momentua iristean azalduko diguzu...
 - Gustatu zaie.
 - Perfekto! Elkarrekin lan egingo dugu!
- Ekitatea zer den azaltzeko PPT aurkezpena egin du Edurnek (moodlen zintzilikatu edo irakasleei helaraziko zaie).
- Irakasleak taldeka elkartu eta “folio birakaria” dinamika erabilita Ekitatearekin loturiko kontzeptuak jaso dira: Injustizia-justizia-aniztasuna-berdintasun soziala-aukera berdintasuna-pertsonak-aniztasuna-iparra/hegoa-elkarlana-elkartasuna-gizarte baldintza hobegoak-arrisku taldeak-aberastasuna-jasangarria-beharrak asetu-biolentzia eza-subiranotasuna-oreka-ondarea mantendu-parekidetasuna-berekoitasuna-duintasuna.
- Saioaren amaieran, irakasleak berriro ere taldekatu dira honako galderei erantzuteko:
 - Ikastetxeetan zer egiten da Ekitatearen alde? Jasotako erantzunak:
 - Liburuaren alokairua.
 - Janari bilketa.
 - Kirola egiteko murrizketa ekonomikoa.
 - Diru bilketa Gobernu Kanpoko Erakundeentzako.
 - Telefono mugikor zaharren bilketa.
 - Arazoak dituzten familiei erraztasunak eskaintzea.
 - ...
 - Herrietan Ekitatea aztertzeko zer ikertu daiteke? Jasotako erantzunak:
 - Zarauzko Neguetxearen erabilera.
 - Eskoletako jangeletako soberakinen erabilera.
 - Herriko kirol talde ezberdinak: sexuaren arabera eta kirolaren arabera.

Hurrengo koordinazio-bileran (urriaren 14an) herriko diagnostikoa egiteko proposamena aurkeztuko du Arazik eta orduan adostuko dira jorratuko diren edukiak.

Horrenbestez, 2015-2016 ikasturteko lehenengo koordinazio-bilerari amaiera eman zaio.

HURRENGO BILERA NOIZ:

Urriak 14.